

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE POLITIKAK  
**Programa:** 230801 BERRIKUNTZA KUDEAKETA  
SISTEMEN EBALUAZIOAREN  
ZUZENDARITZA

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 80 POLÍTICAS SOCIALES  
**Programa:** 230801 DIRECCIÓN DE  
INNOVACIÓN, SISTEMAS DE  
GESTIÓN Y EVALUACIÓN

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### I. MEMORIA

Gizarte Politiken Sailaren aurrekontuan Berrikuntzaren, Kudeaketa Sistemen eta Ebaluazioaren Zuzendaritza sartzen da, zeina arduratzen baita Arabako Lurralde Historikoan gizarte zerbitzuak antolatzeko eredu berri bat zuzendu eta kudeatzeaz.

Kudeaketa eredu eraginkorragoa eta efizienteagoa lortzeko ardura dauka, kalitate goreneko zerbitzu publikoak emanda, Gizarte Politiken diputatuari laguntzeko, sail horri atxikitako bulegoak, zerbitzuak eta erakundeak zuzendu, kudeatu eta koordinatzeko.

#### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

- 2023an, RESIPLUS tresna informatikoa eguneratu da GOFEren egoitza zentro guztietan.
- Halaber, erizaintzara teknologia berrien bidez deitzeko sistema bat aplikatu da 7 egoitza zentro propioetan.
- Nabarmentzekoa da Lakua egoitzan proiektu bati ekin zaiola adimen artifiziala demenzia aurreratua duten pertsonen mina elektroentzefalogramaren bidez detektatzean ikertzeko eta aplikatzeko.
- Gainerakoan, Next Generation Europako Funtsen finantzaketarekin, Ajuria eta Txagorritxu egoitzetan espazioak egokitzeko eta handitzeko obrak egin dira, eta, ondorioz, bizitegi espazioak birmoldatu dira.
- Bizitzaren amaierako arretan profesionalak prestatzeko prozesuari jarraipena emanez, 9 ikastaro antolatu dira, eta 146 pertsonak hartu dute parte.
- Bestalde, Lakondoa eguneko zentroa eta egoitza, Laudioko eguneko zentroa eta laguntzak dituzten etxebizitzak diseinatzeko eta gauzatzeko proiektua amaitu da.

#### I. MEMORIA

En el Presupuesto del Departamento de Políticas Sociales incluye la Dirección de Innovación, Sistemas de Gestión y Evaluación, encargada de liderar y gestionar un nuevo modelo de organización de los servicios sociales en el Territorio Histórico de Álava.

Encargada del desarrollo de un modelo de gestión más eficaz y eficiente, la prestación de unos servicios públicos de la máxima calidad, en apoyo al Diputado de Políticas Sociales en su función de dirección, gestión y coordinación de las dependencias, servicios y organismos adscritos a dicho Departamento.

#### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

- Se ha efectuado en 2023 la actualización de la herramienta informática RESIPLUS en todos los centros residenciales del IFBS.
- Asimismo, se ha aplicado un sistema de llamadas a enfermería mediante nuevas tecnologías en 7 centros residenciales propios.
- Destaca que se ha iniciado en la Residencia Lakua un proyecto de investigación y aplicación de inteligencia artificial en la detección del dolor en personas con demencia avanzada, mediante electroencefalograma.
- Por lo demás, se han ejecutado con financiación de los Fondos Europeos Next Generation, obras de acondicionamiento y ampliación de espacios en las residencias Ajuria y Txagorritxu, con la consiguiente remodelación de espacios habitacionales.
- Dando continuidad al proceso de formación de profesionales en la atención al final de la vida, se han organizado 9 cursos, participando 146 personas.
- En otro orden de cosas, ha finalizado el proyecto de diseño y ejecución del centro de día y residencia Lakondoa y centro de día y viviendas con apoyos en

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 80 GIZARTE POLITIKAK  
**Programa:** 230801 BERRIKUNTZA KUDEAKETA  
SISTEMEN EBALUAZIOAREN  
ZUZENDARITZA

- Urtean zehar, Etxean Bai proiektuaren pilotua ezarri da 50 erabiltzaile eta senitartekorekin, eta horren gauzatze proiektua lizitatzeari ekin zaio.
- Azkenik, honako hauek lizitatu dira:
  - Hazaldi adingabeen larrialdietarako harrera zentroaren irisgarritasun- eta hobekuntza-obren proiektua.
  - Jokabide nahasmendu larriak dituzten adingabeentzako zentro baten gauzatze proiektua.
  - Zahartzeari buruzko Ikerketa Zentroaren proiektua hasteko aholkularitza.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 80 POLÍTICAS SOCIALES  
**Programa:** 230801 DIRECCIÓN DE  
INNOVACIÓN, SISTEMAS DE  
GESTIÓN Y EVALUACIÓN

Llodio, respectivamente.

- A lo largo del año, se ha implementado el pilotaje del proyecto Etxean Bai con 50 personas usuarias y familiares y se ha procedido a licitar su proyecto de ejecución posterior.
- Finalmente, se ha licitado:
  - El proyecto de obras de accesibilidad y mejora en el centro de acogida de urgencias de menores Hazaldi.
  - El proyecto de ejecución de un centro para menores con graves trastornos de conducta.
  - El asesoramiento para inicio del proyecto de Centro de Investigación en Envejecimiento.